



Esp. kodea: 2018SMOZ0006
Titularra: IRABAZI ARRASATE

Gaia: MOZIOEN AURKEZPENA
Hasiera data: 2018/04/12

MOZIOA

Juan Luis Merino Sanabria jaunak, IRABAZI-ARRASATE udal taldearen bozeramalea, mozio arrunt hau aurkezten du osoko bilkuran eztabaidatzeko prekarietatearen aurkako borrokari buruz.

JUSTIFIKAZIOA

Lan prekarietatearen kopuruak Euskadin igo dira modu kezkarrian hiruhilez hiruhil, urtez urte, eta enpleguaren kalitatea da dagoeneko herritarren kezkarik handienetakoa, hainbat inkestaren eta iritzi azterketaren arabera.

Langileen Estatutuaren aldaketek, azken lan erreforma bietan, ekarri dute lan baldintzak malgutzea, eta hain zabala izan da, ezein ekarri baitute txarrera egitea milaka langileen lan baldintzek.

Testuinguru horretan, ekonomia errekeratzen ari da lan baldintzak okertzearen kontura, eta egoera horren aurrean gizarte eragileek zailtasun handiak dituzte prekarietate horren aurka borrokatzeko, zabaltzen ari dena geroago eta gehiago eta kontrolik barik.

Enpleguaren prekarietateak bereziki eragiten die enplegurako zailtasun handiak dituzten kolektiboetara eta gizarte ahuleziako egoeran daudenei. Sektorerik feminizatuenak dira, era berean, prekarizatuenak, Lan Harremanen Kontseiluaren datuen arabera.

Eusko Jaurlaritzak beregain hartu ditu konpromiso zehatz batzuk langabezia tasa gutxitzeko (% 10etik behera gutxitzea), baina ez du hartu halakorik sortzen den enplegu motari dagokionez.

Horregatik, mozio hau aurkezten dugu:

MOZIOA LAN PREKARIETATEARI BURUZ

1.- Arrasateko Udala kezkatuta dago gora egin duelako lan prekarietateak, zeinak une honetan hartu dituen maila kezkarriak, eta konpromisoa hartzen du bere eskumeneko eremuan lan egiteko azken urteotan bizi dugun lan prekarizazioaren prozesua aldaraztearen alde.

2.- Arrasateko Udalak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari beregain hartu ditzan helburu eta helmuga kuantitatibo zehatz batzuk eta ebaluagarriak lan prekarietateari dagokionez, garatu dezan programa espezifiko bat, bat datorrena Enpleguaren Euskal Estrategia 2020ko 5. Erronkan adierazitakoarekin eta bat datorrena Enpleguaren eta Suspertze Ekonomikoaren aldeko Esparru



Esp. kodea: 2018SMOZ0006
Titularra: IRABAZI ARRASATE

Gaia: MOZIOEN AURKEZPENA
Hasiera data: 2018/04/12

Programa 2017-2020ren 8. jardun ardatzean adierazitakoarekin.

3.- Arrasateko Udalak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari bizkarrezur gisa lan prekaritatearen tasak, benetan eta modu eraginkorrean, gutxitzearen helburua sartu dezan Enpleguaren eta Enplegu Publikoaren Euskal Sistemaren etorkizuneko legetan, baita ere, enpleguari buruz gainerako politika publikoetan.

Arrasaten, 2018ko martxoaren 23an